

# Kultur Agenda

Martxoan  
Apirila  
Agoitz  
2022

📞 948 336 690

✉ cultura@aoiz.es

f Facebooken gaude



  
Agoizko Kultur Etxea  
Casa de Cultura de Aoiz

 Nafarroako  
Gobernua

 NAFARROAKO  
ANTZOKI  
SAREA

# martxoa

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

# apirila

				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

## Martxoa

**17-19** (otsaila/martxoa) **Erakusketak.** *X hau ez da okupatzen...*

**1 Inauteriak.**

**5 Pintxo-potea.**

**6 Musika.** *Ibil Bedi*

### Emakumearen Eguna Ospatzeko Ekitaldiak

**8 Elkarretaratzea.** *Emakumeen Nazioarteko Eguna*

**8-27 Lehiaketa.** *Berdintasunerako I. Erakusleihoa*

**11 Aurkezpena.** *Covida eta etxeratzea. Emakumeen istorioak.*

**12 Tailerra.** *Artxibo pertsonalak, memoria kolektiboak.*

**13 Antzerkia.** *Jugando a las damas*

**15 Antzerkia.** *Salto a Escena-Oholtzara Salto. Tripe salto.*

**17 Dokumentala.** *Con las cartas marcadas*

**18 Liburu Aurkezpena.** *Añoranzas de un Aoiz que fue. Kiko Lako*

**19 Euskararen Eguna - Korrika 22**

**24 Zine Foruma.** *We have a dream*

**25 Musika.** *Agoizko Musika Eskola. Kontzertu orokorra*

**26 Trebakuntza.** *Eramango nauzu? Eramango zaitut?*

**Agoitz Hiria Narrazio Laburraren XV. Lehiaketa.** *Apirilaren 1a arte*

## Apirila

**1 Musika.** *Agoizko Musika Eskola. Gitarra entzunaldia*

**2 Emakumeentzako sentsibilizazio jarduerak Agoitzen.**

**2 Pintxo-potea.**

**3 Antzerkia.** *"No quedará ninguno" (Diez negritos)*

**8, 9 Antzerkia** *La señal. DBH-ko 4.mailako ikasleak*

**10 Musika.** *Agoizko San Migel Abesbatza*

**13 Musika.** *Agoizko Musika Eskola. Kontzertu didaktikoa*

**22, 23 Herritarren zientziari buruzko jardunaldiak.** *Landareak*

**23 Liburuaren Eguna.** *Arte Plastikoko tailerra*

**24 Antzerkia.** *Greenpiss. Yllana*

**29 Liburu Aurkezpena.** *Romerías a San Miguel de Izaga*



## IBIL BEDI



**6** martxoa  
igandea  
**18:30 José Amichis plaza**  
Doako eta aire zabaleko jarduera



Uholdeak programaren barruan, eta erakusketa-proiektuaren eta bertan dauden egoitzen berezitasunen arteko lotura bultzatzeko asmoz, inguruko artista eszenikoak ere baditugu, inguruko arte-eragileen ikusgarritasuna bultzatzeko. Agoitzen Ibil Bedi izanen dugu, beste estilo batzuetako ukituekin pop oso naturala egiten duen talde nafarra, Irunberriko, Erriberriko, Iruñeko eta Zangozako bost gaztek osatua.

\*Euria egiten badu, emanaldia Kultur Etxeko Entzutegian izanen da; kasu horretan, gonbidapenak 17:30etik aurrera jaso beharko dira Kultur Etxeko leihatilan.

## AGOIZKO MUSIKA ESKOLA



Doako jarduerak

### **KONTZERTU OROKORRA**

martxoaren 25a | larunbara | 18:00 | Kultur Etxea

### **GITARRA ENTZUNALDIA**

Apirilaren 1a | ostirala | 19:00 | Kultur Etxea

### **KONTZERTU DIDAKTIKOA**

Apirilaren 13a | asteazkena | 11:30 | Kultur Etxea

Ikastetxeko ikasleei soilik eskainitako kontzertua.



## AGOIZKO SAN MIGEL ABESBATZA

### **ELIZ-MUSIKAKO KONTZERTUA**



**10** apirila  
igandea  
**19:00 Eliza**  
Doan

Organiza:



actos conmemorativos del 801Z.AGOITZ  
**DIA DE LA MUJER 2022**  
**EMAKUMEAREN EGUNA**  
ospatzeko ekitaldiak

## ELKARRETARATZEA



**8** martxoa | asteartea | **19:00**  
Udaletxearen aurrean

**EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA**

## AURKEZPENA



**11** martxoa | ostirala | **18:30**  
Kultur Etxea. Doako jarduera

**COVID ETA ETXERATZEA.**  
**EMAKUMEEN ISTORIOAK.**

Hurbil zaitetz gurekin partekatuzera COVID-19aren gure bizipenei buruzko tailerraren emaitza. Adin eta bizi-erperientzia anitzeko zenbait emakume, Agoizko emakume gehienen ahotsa bilakaturik. Bizitza kontakizunak, zuzeneko musikaz lagunduta; Musika Eskolako ikasleen laguntzarekin.

Antolatzailea



Área de Igualdad  
Bertintasun Arloa

Laguntzailea



Ideia eta bideratzea



## TAILERRA



**12** martxoa | larunbata | **12:00-14:00**  
Kultur Etxea. Doan

**ARTXIBO PERTSONALAK,**  
**MEMORIA KOLEKTIBOAK.**  
**UHOLDEAK PROGRAMA**



**Izen-emateak:** cultura@aoiz.es / 600 445 238

Tailerra elkarlanerako gunea izanen da, esplorazio eta elkartruke librea eta lagundua. Goizean zehar guztien iritzi eta sentsazioekin eraikitzen eta osatzen joanen dira partehartzaileak. Aukeratu arbaso femenino bat: amona, ama, izeba, birramona..., edozein pertsona izan daiteke, baita zure familiakoa ez den edo ezagutzen ez duzun norbait ere. Jaso hari buruzko mota guztietako memoriak: argazkiak, istorioak, gutunak, dokumentuak, abestiak, bururatzen zaizun edozein objektu izan daiteke. Ahal duzun guztia bildu eta ekar ezazu martxoaren 12an (larunbata).



# ANTZERKIA



**13** martxoa | igandea | 19:00 | 65´  
Kultur Etxea. 4€

## JUGANDO A LAS DAMAS

TDIFERENCIA

Testigantza Komedia / Bi emakume eszenan

Fotos, hormonas y lexatín... eta Tirarse al monte bakarrizketen muintetik sortu da antzerki-proposamen hau. Egoera ezberdin, erreal eta dibertigarri bezain zintzoetan dauden bi emakumeren testigantzak biltzen ditu.

# ZINE FORUMA



**24** martxoa | osteguna | 19:00 | 60´  
Kultur Etxea

## WE HAVE A DREAM

LABURMETRAIA DOKUMENTALA + ZINE FORUMA

Parte-hartzaileak: **Acción Contra la Trata - ACT / Las Poderosas**

Ahalsuak hemen gaude. Proiektu honen bidez gure burua ezagutzera eman nahi dugu. Zure hirian bizi gara, gure hirian, zure kaleetan paseatzen dugu, gure kaleetan, baina batzuetan ez dugu elkar ikusten.



# ERAKUSKETA



**17-19** otsaila-martxoa  
Erakusketa Aretoa

Asteartetik larunbatera: 18:00-20:00

**X HAU EZ DA OKUPATZEN...**  
UHOLDEAK PROGRAMA

Ikerketa kuratoriala, Nafarroako bost artista plastikoren lanak osatua, hiru esparru teorikoren gainean eraikia: imaginario feministak, espazioa eta gorputzazuna.

# LEHIAKETA

**8-27** martxoa

## BERDINTASUNERAKO I. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Parte-hartzaileak:

- **Frontoiko taberna**
- **Bados botika**
- **Orrea. KC**
- **Aoizko Okindegia**
- **ELKE**
- **Agoitz optika**
- **Panpoxa**
- **Latasa harategia**
- **Reparazea frutadenda**
- **Yolanda botika**
- **Bengoetxea botika**
- **A.M. SALUD Y BELLEZA**
- **Grupo IZAGA zerbitzuak**
- **Angiluerreka Elkarte**
- **Txoko NEKANE**
- **Toki Eder kirolak**
- **Migueliz harategia**
- **Estefanía Sanchez / Psicología y Coaching**

# Antzerkia

## SALTO A ESCENA-OHOLTZARA SALTO



Nafarroako Antzoki Sareak bultzatutako programa honen bitartez Arte Eszenikoak gazteengana hurbildu nahi dira eta haiek protagonista bihurtu, haien beharrei erantzunez. Gazteen mundura iristeko eta haiekin guztiekin harremanetan jarri ahal izateko, hezkuntza arloko profesionalen laguntza paregabea dugu, eta horiek gabe ezinezkoa izanen litzateke ekimen hau martxan jartzea.

## TRIPLE SALTO

PIKOR TEATRO



**15** martxoa, asteartea  
11:15-14:45 / Kultur Etxea

Eskola-saioa, Ikastetxeko ikasleekin

## “NO QUEDARÁ NINGUNO” (10 NEGRITOS) ASOCIACIÓN BUTACA 78



**3** apirila, igandea  
Kultur Etxea. 5€

19:00 Zuzendaritza: Laura Laiglesia

Autorea: Agatha Christie

12 urtetik aurrera / Iraupena: 70´

Hamar ezezagun Ingalaterrako kostaldeko uhartetxo misteriotso batean elkartu zituen U.N. Owen izeneko batek, luxuzko etxe baten jabeak. Lehen afariaren ondoren, eta anfitrioiara oraindik ezagutu gabe, grabazio baten bidez leporatzen diete hamar mahaikideei iraganean krimen bat egin izana.

## LA SEÑAL

DBH-KO 4.MAILAKO IKASLEAK



**8.9** apirila  
Kultur Etxea. 5€

19:00 (ostirala) / 18:00 (larunbata)

12 urtetik aurrera

Iraupena: 60´

Agoitz inguruko mendietan “La bruja” izena duen kanpaldi erlijioso bat dago. Urtero bezala, Agoizko hainbat neska-mutil kanpaldira doazte. Baina, aurtengoa azkenekoa izango da. Galduko duzu?

Antolatailea: DBH-ko ikasleek Irati Antzeki Taldearekin batera

## GREENPISS

YLLANA



**24** apirila  
igandea  
19:00 Kultur Etxea. 10€

12 urtetik aurrera

Iraupena: 90´

Greenpiss satira izugarri dibertigarria da, ekologiarri, gure planetaren etorkizunari eta geure espeziearen iraupenari buruzkoa. Berotze globala, plastikoen gehiegizko erabilera, mugarik gabeko kontsumoa, milaka eta milaka espezieren desagertzea eta geure espeziearen beraren iraungitze posiblea dira Yllanaren erokeria berri honen abiapuntua.

# Erakusketak

## UHOLDEAK



Uholdeak Huarteko Arte Garaikideko Zentroaren erakusketa-programa bat da; arte garaikideko proiektuen komisariotza eta ikerketa kuratoriala sustatzea dira bere helburu nagusiak, bertako artisten lana zabaltzea eta arte garaikidea Nafarroako lurralde osoan zabaltzea.

## X HAU EZ DA OKUPATZEN...



**17-19** otsaila-martxoa  
Erakusketa Aretoa

Asteartetik larunbatera: 18:00-20:00

Komisarioa: **Jone Rubio Mazquiaran**

Artistak: **Aizpea de Atxa, Andrea Ganuza, Celia Eslava, Ione Atenea, Mireya Martín Larumbe.**

Erakusketa honek, objektuen memoriari egiten dio erreferentzia, espazioan dagoenari eta, neurri batean ere, bere izateari. Eta, ildo beretik, hierarkia artistikoak haustera gonbidatzen du, horiek giro berean integratuz, non adierazpen guztiak elkar lotzen, murgiltzen eta apurtzen diren.

## ARTEFAKTUEN LANTEGIA

Liburutegia | Doan

*X hau ez da okupatzen...* erakusketan barne Agoitzeko liburutegian liburu apalategi txiki bat egongo da. Bertan proiektuan parte hartu duten artistek haien irakurketak gomendatzen dituzte. Ezagutu eta eraman liburu batzuk etxera!

## JARDUERA DIDAKTIKOAK

Martxoaren 8-10a

Erakusketan, hezitzaile batek zuzenduak, San Migel Eskola DBHko ikasleek lan-saioak eginen dituzte: erakusketaren edukinak landuko dira galdera, azalpen eta dinamika sortzaile desberdinak erabiliz. Alde dialogikoaz gain, beste era bateko lengoaiak (gorputza, soinua, idazketa...) erabiltzea proposatzen dituzten dinamikak landuko dira.



# Liburua, protagonista

## AGOITZ HIRIA NARRAZIO LABURRAREN XV. LEHIAKETA



San Migel LHI eta DBHI-ko ikasleak.

**Aurkezpena:** 2022ko **apirilaren 1a** arte San Migel Eskolan LHI eta DBH-ko administrazio bulegoan.

+ info: [cultura@aoiz.es](mailto:cultura@aoiz.es) / 600 445 238

## LIBURU AURKEZPENA

### AÑORANZAS DE UN AOIZ QUE FUE KIKO LAKO ITOIZ

martxoaren 18a | ostirala | 19:00 | Aurelio León Aretoa



Liburu honek kontakizun labur batzuk berreskuratu eta aurkeztu ditu. Kiko Lako Itoiz da idatzien egilea. Lanetako batzuk El Tuto aldizkarirako propio idatzitakoak dira, hainbat zenbakitan argitaratutakoak; beste batzuk, berriz, azken aldian idatzi ditu. Liburuan herriko zenbait pertsona dira protagonista, egileak joan den mendeko azken hamarkadak ulertzeko ezinbestekotzat jotzen dituenak. Hilda daude, dagoeneko, eta beren bizitzan zehar sortzen eta osatzen joan dira egun dugun Agoitz.

## LIBURU AURKEZPENA

### ROMERÍAS A SAN MIGUEL DE IZAGA FERNANDO HUALDE

apirilaren 29a | ostirala | 19:00 | Kultur Etxea



Fernando Hualde idazle eta ikertzaileak urteak daramatza erromerien inguruko testigantzak biltzen eta aztertzen, eta orain, Joseba Urretabizkaia argazkilaria eta editorearen eskutik, argitara ematen du argitalpen hau; martxa erlijioso historiko horien oroimena babestera datorren lana.

## ARTE PLASTIKOAK. TALLERA

apirilaren 23a | larunbata | Liburutegia | 5€

Liburuaren Eguna ospatzeko,  
libretak eta orri-markatzaileak egingo ditugu.



**Irakaslea:** Patxi Huarte Alemán

**Ordutegia:** A Taldea: 9:30-11:20 (8-12 urte bitartekoak)  
B Taldea: 11:30-13:20 (5-7 urte bitartekoak)

**Covid-19 neurriak. Plaza mugatuak.**

**Izen-emateak:** Apirilaren 11tik 19ra - [cultura@aoiz.es](mailto:cultura@aoiz.es) -  
Mezua bidali izen-abizenak, adina eta telefonoa jarri.

Izen-ematea baieztatutakoan, zenbatekoa Rural Kutxan sartu:  
ES83 3008 0233 1531 3763 3925.

# Beste Jarduerak



**INAUTERIAK 2022**  
martxoaren 1a | asteartea

## PINTXO-POTEa

martxoaren 5a eta apirilaren 2a | larunbata | 19:00



## DOKUMENTALA

martxoaren 17a | osteguna | 19:00 | Kultur Etxea



## CON LAS CARTAS MARCADAS

Foruaren Hobekuntzaren negoziazioa 1982an nola gauzatu zen azaltzen duen kontakizun herrikoa da.

Nafarren borondatea urratu zen, argi eta garbi; izan ere, autonomia-estatutua bozkatu ez zuen erkidego historiko bakarra da.

40 urte geroago, Nafarroan anormaltasun demokratiko horrekin amaitzea eskatzen da, eta bere orainari, etorkizunari eta autogobernuari buruzko eztabaida sustatzea.

## EUSKARAREN EGUNA - KORRIKA 22

martxoaren 19a | larunbata | Egun osoan zehar



Kalejira eta Kantuz  
Haurrentzako jolasak  
Herri bazkaria  
Musika

## ERAMANGO NAUZU? ERAMANGO ZAITUT?

Trebakuntza teorikoa on-line: martxoaren 16 eta 23a | 19:00

Trebakuntza praktikoa: martxoaren 26a | goizean | Agotiz



Boluntario izan nahi duzu adinekoak edo desgaitasuna duten pertsonak paseatzeko?



PARTE HARTU FORMAKUNTZAN!

Mugikortasun jasangarriari buruzko boluntarioritza proiektu honetan parte hartu eta lagundu irribarreak marrazten.

Informazio guztia: [garrapo@garrapo.com](mailto:garrapo@garrapo.com) / 638 136 531



## EMAKUMEENTZAKO SENTSIBILIZAZIO JARDUERAK AGOITZEN



apirilaren 2a | larunbata | 10:00-13:00

- jarduera:** Udalerrietako emakumeek bizikletaren erabilerari dagokionez dituzten beharrei buruzko azterketa egingen da.
- jarduera:** Bizikleta baten osaerari eta erabilerari buruzko ezagutzak eta autonomia eskuratzea: bizikleta prest jartzeko praktikak.
- jarduera:** Bizikleta irteera Eurovelo3 ibilbidetik.

Izen-emateak: [info@arete-activa.com](mailto:info@arete-activa.com) / 94819 96 13

## HERRITARREN ZIENTZIARI BURUZKO JARDUNALDIAK. LANDAREAK



apirilaren 22a | ostirala | Aurelio León Aretoa

18:30 | Saio teorikoa

19:30 | Saio praktikoa

apirilaren 23a | larunbata | Elkargunea: Udaletxea

10:00 | Irteera botanikoa

Hizlaria: Felix Rey

Izen-emateak: [cultura@aoiz.es](mailto:cultura@aoiz.es)

## Sarreraren salmenta:

• Interneten: [www.aoiz.es](http://www.aoiz.es)

\***Oharra:** Sarrerak Internet bidez erosi ezin dituenak salgai izanen ditu Kultur Etxean, erakusketa zabalik dagoen ordutegian: Asteartetik larunbatera, 18:00etatik 20:00era.

• Leihatilan, ikuskizuna hasi baino ordu bete lehenago (sarrerarik gelditzen bada)

\*Hartutako sarrerak ezingo dira aldatu, ezta itzuli ere, ikuskizuna bertan behera uzten denean izan ezik.

## Araurorokorrak:

- Ezin izanen da aretoan sartu, funtzioa hasita baldin badago.
- Sakelako telefonoak edo/eta mota guztietako alarma edo seinaleak itzaliko dira, Kultur Etxera sartuta.
- Isilik egon, aktoreek arreta gal ez dezaten eta beste ikusleekiko errespetuagatik.
- 7 urtetik beherako haurrak arduradun batekin agertuko dira, edozein dela antolatutako aktibitatea.
- Ezin da filmatu, grabatu edo argazkirik atera, Kultur Etxeak espresuki baimena eman ez badizu.
- Ikuskizuna edo aktibitatea garatzen den bitartean, libre egonen dira sarrerak, irteerak eta pasilloak, eta ez da han inolako elementurik utziko.
- Ezin da Kultur Etxera sartu animalia, bizikleta edo patinekin batera.
- Kultur Etxeko aretoetan ezingo da jan edo edan, Kultur Arloak egoki ikusten dituen zenbait egoeratan izan ezik. Modu berean, erretzea ere debekatuta dago.
- Programazioan zerbait gertatuz gero edo aldaketarik emanez gero, jakitera emanen da ohiko hedabideen bidez.
- Kultur Etxean dauden langileek esandakoari jarraituko zaio beti.
- Agoizko Udalak adierazitako arauak errespetatzen ez dituzten pertsonak onartzeko edo baztertzeko eskubidea dauka.

---

## COVID-19 SEGURTASUN-NEURRIAK

Agoizko Kultur Etxean, osasun-agintarien gomendioak eta gidak jarraituz, babes-neurriak ezarri ditugu gure zerbitzu eta instalazioetan, koronabirusarekiko esposizioaren arriskuak ahalik eta gehien murrizteko eta, horrela, pertsonen segurtasuna eta osasuna bermatzeko.

Neurriak etengabe berrikusten ari dira, COVID-19ri buruz indarrean dauden araudiak eguneratzearen eta egokitzearen arabera.

### 1. Instalazioak garbitzea, desinfektatzea eta mantentzea

- Ekitaldi bakoitzaren aurretik eta ondoren, erabiliko diren instalazioak garbitu eta desinfektatuko dira.
- Erabiltzaileek erabil ditzaketen espazio guztiak egunero garbituko dira, edo eta erabilera-maiztasunaren eta jende-fluxuen arabera.
- Gel-banagailu hidroalkoholikoak behar bezala seinaleztatuta jarriko dira.

### 2. Instalazioetara sarbideak eta zirkulazioak

- Publiko-fluxuak zuzentzeko behar diren bitartekoak artikulatuko dira. Sarrera mailakatua izango da, eta segurtasun-tarte egokiak gordeko dira.
- Txarteldegian zein aretoetarako sarbideetan segurtasun-distantzia mantentzen dela zainduko da, lurrian argi eta garbi identifika daitezkeen markak txertatuz.

### 3. Norberaren osasuna eta higiena

- Kultur Etxean eta antolatutako ikuskizunetan derrigorrezkoa izango da maskarak erabiltzea.
- Gel-hidroalkoholikoa aretoaren sarreran egongo da.